

Mamiz betetako bost urte

Euskaldunon Egunkaria, 1995-12-03.

Beteak, intxaur finak bezala, etorri eta joan dira bere bidetik bost urteak. Haurgintzaren legez ekarri du egun bakoitzak, lanekin batera, ogi bat altzoan esperantzak; eraman ditu lagunekin Joxemi eta besteak; denak baitu prezio garestia plaza honetan; baina inurrien antzeko ordetailukintzan dena izan da posible. Minez ornituak beti, halere, bost urteak, edozein familia errumesen antzera pasatuak, pasaraziak hobe; munduko ekonomiaren baitan gauza gutxi gure pobrezia!

Begizehiarrez beha besterik ez duzu Publizitate ofizialaren kotizazioa, orain euskalduna, por fin!:

El Correo	% 28
Deia	% 25
Diario Vasco	% 22
Egin	% 5
El Mundo	% 11
Egunkaria	% 9

Pentsatuz, bereizkeria hau gaztelerak dituen abantaila kolonialen nagusitasunak bakarrik kontuan hartuz egindako justizia dela eta, egin berria dugu euskaraz, bost urtetan zehar eginiko hobekuntzen gaintetik, ahalegin handiko berri bat: Orrialdez handitu dugu: 8 eguneroko gehiago (40 orain), eta igandetako 16 gehiago (48). Kolorea erantsi diogu, publizitatetako ere balioa erantsi nahiz. Diseinua erakargarriago egin. Astegun bakoitzari bere gehigarria prestatu: 1. Euskalduntze-Alfabetatzea. 2. Unibertsitatea. 3. Gazteak. 4. Mendi eta abentura. 5. Literatura, eta 6. Igandeko KZ. Astelehenean irtengo ginateke gustora igandeko kirol emaitzak eskaintzeko, baina asko garestituko litzaiguke kazetaritzarako ardura xume hau. Badira oraindik beste gehiketa batzu sail berezietan: politika, gizartea, zutabe berriak, behar puntuala nabaritzen denerako.

Hau dena ez da antsia gabe, dohainik, egina izan, honen ondorio gisa usteak, itxaropenak, gaur egunero ditugun 40.000 irakurleak 50.000 izatera jaso nahi genituzke.

Bada, bestalde, beste lehiarik, baina, gaurko bizimoduan gertatzen den gisa, denak garestiak, eta itxaron beharko dute kontrapisuko gure ahalmen ekonomikoak ailegatzeko diren arte. Egunkaria ez baita Guggenheim!

Bitartean, gerrikoa estutu eta orain arte bezala, jarrai!

Eta, aizu, ez da programa xumea.